Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

| | |
|---|---|
| **LAGUNTZEN DEIALDIA, KALITATE AIPAMENA DUTEN DOKTOREGOETARAKO SARBIDEA EMATEN DUTEN IKERKETA MASTERRETAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEEN MUGIKORTASUNA ERRAZTEKO, BAI ETA KALITATE AIPAMENA DUTEN 2007ko DOKTOREGO PROGRAMETAN MATRIKULATUTA DAUDEN IKASLEENA ERE** | **CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA MOVILIDAD PARA ESTUDIANTES MATRICULADOS EN MASTERES DE INVESTIGACIÓN QUE DAN ACCESO A DOCTORADOS CON MENCIÓN DE CALIDAD Y PROGRAMAS DE DOCTORADO CON MENCIÓN DE CALIDAD (2007)** |
| **OINARRIAK** | **BASES** |
| 1. LEGE BABESA | 1. AMPARO LEGAL |
| Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak 38.3 artikuluan dioenez, unibertsitateek beka, kreditu eta ikasketetarako laguntzak emateko beren sistema garatu ahal izango dute. | El artículo 38.3 de la ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco señala que las universidades podrán desarrollar su propio sistema de becas, créditos y ayudas al estudio. |
| Bestalde, 115.1 artikuluak honakoa dio: inor gera ez dadin UPV/EHUn ikasteke arrazoi ekonomikoengatik, erakunde publiko eta pribatuek ikasketak egiteko laguntza sistema zabala izan dezatela bultzatuko du UPV/EHUk, ikasleentzako beka eta diru-laguntzen sistema orokorraren osagarri gisa. | Por su parte, el artículo 115.1 dispone que con objeto de que nadie quede excluido del estudio en la UPV/EHU por razones económicas, como complemento del sistema general de becas y ayudas a los estudiantes, la UPV/EHU promoverá el establecimiento por las instituciones públicas o privadas de un sistema amplio de ayudas al estudio. |
| Bukatzeko, UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2003ko irailaren 2ko erabakiaren bidez agindua eman zen EHAAn argitaratzeko bekei buruzko UPV/EHUko arautegia, behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2003ko maiatzaren 13an onartu zuena. Arautegi horretako 9. artikuluak dioenez, ikasketetarako diru-laguntzak eta laguntza orokorrak eman dakizkieke ikastegi, sail edo institutu jakin bateko ikasleei. | Finalmente, el art. 9 de la Resolución de 2 de septiembre de 2003, del Secretario General de la UPV/EHU, por el que se ordena la publicación en el BOPV del Reglamento de Becas de la UPV/EHU aprobado por el Consejo de Gobierno Provisional en su sesión de 13 de mayo de 2003 ampara la concesión de bolsas y ayudas al estudio de carácter general a los alumnos de un Centro, Departamento o Instituto. |
| 2.- DEIALDIAREN HELBURUA | 2.- OBJETIVO DE LA CONVOCATORIA |
| Deialdi honen helburua da kalitate-aipamena duten doktoregoetarako sarbidea ematen duten ikerketa-masterretan izena eman eta matrikulatuta dauden ikasleen mugikortasuna erraztea, bai eta kalitate-aipamena duten 2007/2008 ikasturteko doktorego-programetan matrikulatuta dauden ikasleena ere. | El objetivo de esta convocatoria es facilitar la movilidad del estudiante que esté en primera instancia preinscrito y posteriormente matriculado en Masteres de Investigación que dan acceso a Doctorados con Mención de Calidad o en Programas de Doctorado con Mención de Calidad de la UPV/EHU, en el curso académico 2007/2008. |
| Kalitate-aipamena duten doktoregoetarako sarbidea ematen duten masterrek eta kalitate-aipamena duten doktorego-programek ikertzaileen prestakuntza bermatzen dutela egiaztatzen dutenez, horietan matrikulatuta dauden ikasleen mugikortasuna sustatzeko diru-laguntza emateari egoki deritzogu. | Dado que los másteres que dan acceso a Doctorado con Mención de Calidad y Programas de Doctorado con Mención de Calidad son los que tienen acreditada la formación de personal investigador, se ha considerado oportuno abrir una línea de financiación que promueva ayudas a la movilidad para alumnos matriculados en los referidos estudios. |
| 2007/2008 ikasturterako kalitate-aipamena lortuko duten ikerketa-masterretako ikasleek diru-laguntza eskatu ahal izango dute baldin eta ikastaro osorako ematen badute izena eta, ondoren, ikastaro osoaren matrikula egiten badute. 2007/2008 ikasturterako kalitate-aipamena lortuko duten doktorego-programetako ikasleek, berriz, | Podrán solicitar estas ayudas aquellos estudiantes que se preinscriban y posteriormente se matriculen del curso completo en el Master de Investigación que en su Doctorado correspondiente obtenga la Mención de Calidad para el curso académico 2007/2008. Igualmente para los alumnos que se matriculen tanto en el periodo de |

| | |
|---|---|
| irakaskuntza-aldian zein ikerketa-aldian egin beharko dute matrikula (20 kreditu eta 12 kreditu, hurrenez hurren). | docencia (20 créditos) como en el periodo de investigación (12 créditos) en aquellos Programas de Doctorado que obtengan la Mención de Calidad para el curso académico 2007/2008. |
| Ikasleei urteko 3.000 € emango zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan bizi badira, eta urteko 4.500 € beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetan bizi badira. | Las ayudas consistirán en una dotación de 3.000,-€/año a los estudiantes con domicilio en la Comunidad Autónoma del País Vasco y de 4.500,-€/año a los procedentes de otras comunidades autónomas u otros países. |
| Deialdia urtero egingo da, horretarako aurrekontua badago. | Esta convocatoria se realizará anualmente, condicionada a la existencia de crédito presupuestario para estos fines. |
| Aurrekontuan horretarako dirurik badago, nahikoa izango da UPV/EHUko Doktoregoko Azpibatzordearen onespena deialdia egiteko, baldin eta deialdia bat baldin badator honako honetan jasotakoarekin. | En la medida en que exista disponibilidad presupuestaria, se podrán realizar convocatorias mediando únicamente la preceptiva aprobación de la Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU, siempre y cuando dichas convocatorias se correspondan con los términos especificados en la presente. |
| 3. HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK | 3. REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES |
| Eskaerak aurkezteko xedatutako epearen barruan, laguntza hauek lortzeko hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte: | Los/as aspirantes a estas ayudas deberán reunir, dentro del plazo establecido para presentar las solicitudes, los siguientes requisitos: |
| a) Izena emanda izatea kalitate-aipamena duen ikerketa-master batean (doktoregorako sarbidea ematen duena) edo kalitate-aipamena duen UPV/EHUko doktorego-programa batean.<br>b) Ikerketa-masterra edo doktorego-programa egiteko beharrezkoa den titulua izatea. | a) Estar preinscrito en un Master de Investigación que da acceso a Doctorado con Mención de Calidad o en un Programas de Doctorado con Mención de Calidad de la UPV/EHU .<br>b) Tener superada la titulación por la que se accede a los estudios de Master de Investigación o Programa de Doctorado. |
| 4. ESKAERAK AURKEZTEA | 4. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES |
| 4.1. **Eskaerak aurkezteko epea.** Eskaerak deialdi hau argitaratzen denetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2007ko uztailaren 30era arte. | 4.1 **Plazo de presentación**. Las solicitudes podrán presentarse desde la fecha de publicación de la presente convocatoria hasta el 30 de julio de 2007. |
| 4.2. **Eskaerak aurkezteko lekua.** Eskaerak, hurrengo atalean adierazitako agiriekin batera, UPV/EHUko Doktorego Azpibatzordearen buruari igorri behar zaizkio honako helbide honetara, ikasleen mugikortasunerako deialdirako dela adieraziz: Graduondoko Ikasketen eta Etengabeko Prestakuntzaren Atala, Master eta Doktoregoko Atala, I. Ikasgelategia, Unibertsitate Campusa, Leioa. Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako campusetako Erregistro Orokorreko bulegoetan ere aurkeztu ahal izango dira, hau da, UPV/EHUko 2002ko irailaren 26ko Erabakian zerrendatutako bulegoetan (2002ko urriaren 24ko EHAA); bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako prozeduren bitartez aurkeztu behar dira. | 4.2 **Lugar de presentación.** Las solicitudes estarán dirigidas a la Presidenta de la Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU, con los documentos que se indican, a la siguiente dirección: Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua, Sección de Master y Doctorado, Aulario I, Campus Universitario, Leioa, e indicando "Convocatoria Movilidad de Estudiantes". Se podrán presentar en cualquiera de los Registros Generales de los Campus de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, esto es, en las Oficinas enumeradas en la Resolución de la UPV/EHU de 26 de septiembre de 2002, (BOPV de 24 de octubre de 2002) o, en su caso, conforme al artículo 38.4 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común. |
| 4.3. **Aurkeztu beharreko agiriak**: | 4.3 **Documentos**. |
| a) Ereduaren araberako eskaera orria (1. agiria)<br>b) NANaren edo pasaportearen fotokopia.<br>c) Ziurtagiri akademikoa, karrerako irakasgai guztietako kalifikazioak eta deialdia adierazita. | a) Solicitud según el modelo (documento 1).<br>b) Fotocopia del DNI o pasaporte.<br>c) Certificación Académica Personal con indicación de las calificaciones y convocatorias de todas las asignaturas de la carrera |
| d) Ikasleak eginiko lan, artikulu edo argitalpenak. | d) Trabajos, artículos o publicaciones realizadas por el |

| | |
|---|---|
| | estudiante. |
| 5.- ESKAERAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK | 5.- CRITERIOS DE VALORACIÓN: |
| Bost laguntza emango dira gehienez kalitate-aipamena duen ikerketa-master edo doktorego-programa eta deialdi bakoitzeko, eta honako hauek izango dira irizpideak: | Se otorgarán un máximo de hasta cinco ayudas por Master de Investigación o Programa de Doctorado con Mención de Calidad y convocatoria, en base a los siguientes criterios: |
| a) Espediente akademikoa (70 puntu).<br>b) Ikasleak eginiko lan, artikulu edo argitalpenak (30 puntu). | a) El expediente académico (70 puntos).<br>b) Trabajos, artículos o publicaciones realizadas por el estudiante (30 puntos). |
| 6.- LAGUNTZAK ESLEITZEA | 6.- ADJUDICACIÓN DE LAS AYUDAS |
| UPV/EHUko Doktorego Azpibatzordeak eskaerak balioetsiko ditu eta aldeko edo kontrako txostena egingo du. | La Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU valorará las solicitudes y emitirá un informe de adjudicación o denegación. |
| Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2006ko uztailaren 20ko Erabakiaren lehenengo puntuko 3. atalean zehaztutakoaren arabera (Zuzendaritza Kontseiluaren egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eginkizunak eskuordetzeko erabakia), laguntzak Graduko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordearen erabakiaren bitartez esleituko dira, UPV/EHUko Doktorego Azpibatzordearen proposamenari jarraiki. | De conformidad con el punto primero, Nº 3 de la Resolución de 20 de julio de 2006, del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento del Consejo de Dirección y de delegación de competencias, las ayudas serán adjudicadas mediante Resolución por la Vicerrectora de Estudios de Grado y de Postgrado, a propuesta de la Subcomisión de Doctorado de la UPV/EHU. |
| 7.- ERABAKIA | 7.- RESOLUCIÓN |
| Graduko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordeak erabakiko du deialdiaren inguruan, eta 2007ko irraileko lehen hamabostaldian emango du aukeraketaren emaitzen berri. | La Vicerrectora de Estudios de Grado y de Posgrado, resolverá la convocatoria y dará a conocer el resultado de la selección en la primera quincena del mes de septiembre de 2007. |
| Errektoreordearen erabakiaren aurka, honako errekurtso hauek aurkez daitezke: | Contra la Resolución de la Vicerrectora, cabe interponer los siguientes recursos: |
| a) Nahi izanez gero, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, jakinarazpena hartu eta biharamunetik kontatzen hasita (azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116.1. artikulua); errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, administrazio-isiltasunez errekurtsoa ezetsitzat jo dela ulertu beharko da. | a) Potestativamente, el **recurso de reposición** que autoriza el artículo 116.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el plazo de 1 mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación ante el Rector de la UPV/EHU, el cual se entenderá desestimado por silencio negativo, una vez transcurrido 1 mes desde su interposición sin notificarse la resolución expresa del mismo. |
| b) Bestela, zuzenean, **administrazio-auzi errekurtsoa** aurkez daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan. Bi hilabeteko epea izango da, erabaki honen inguruko jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera hasita, abenduaren 21eko Lege Organikoko 6.4. artikuluan eta Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legeko 8.3. eta 14.1. artikuluetan (lehenengo irizpidean) adierazitakoaz bat. | b) Directamente, **recurso contencioso administrativo** ante los Juzgados de lo Contencioso Administrativo de Bilbao en el plazo de 2 meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación de la resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artº 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades y en los artículos 8.3 y 14.1, regla primera, de la vigente Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, de 13 de julio de 1998. |
| 8.- LAGUNTZAREN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNEN ARAUBIDEA | 8.-CARACTERÍSTICAS DE LA AYUDA Y REGIMEN DE LOS/LAS BENEFICIARIOS/AS |
| 8.1. Prestakuntzan dihardduen pertsonal ikertzailearen estatutuan ezarritakoari jarraituz, laguntza horiek ezin izango zaizkie eman doktorego aurreko beka dutenei. | 8.1 Estas ayudas no son compatibles con el disfrute de una beca predoctoral regulada por el Estatuto de Personal Investigador en Formación. |

| | |
|---|---|
| 8.2. Laguntza esleitzen zaionean, onuradunak honakoak aurkeztu beharko ditu: | 8.2 En el momento de la adjudicación de la beca, el beneficiario/a deberá presentar: |
| a) Zinpeko aitorpena, beka jasotzeko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena. | a) Declaración jurada de no estar sujeto a incompatibilidad en la percepción de la ayuda. |
| b) Interesdunaren aitorpena, laguntza eta deialdian xedatutako baldintzak eta betebeharrak onartzen direla ziurtatzen duena. | b) Declaración individualizada de aceptación de la ayuda y de las condiciones de disfrute y obligaciones previstas en la convocatoria. |
| c) Matrikulako agiriaren fotokopia. | c) Fotocopia del resguardo de matrícula. |
| d) Bankuko kontuaren datuak: banketxea, bulegoa, dirua eman behar den kontu-zenbakia. Bestalde, titularraren NANa edo pasaportea behar da | d) Datos bancarios: entidad, sucursal y nº de cuenta en la que debe realizarse el ingreso, así como el DNI o pasaporte del titular de la misma. |
| 8.3. Laguntza jasotzeak ez dakar inolako kontratu harremanik onuradunaren eta UPV/EHUren artean, eta bateraezina da ordutegi jakin bat betetzea dakarren beste edozein beka edo laguntza jasotzearekin edo soldata jasotzearekin. | 8.3 La adjudicación de la ayuda no supone relación contractual alguna entre el/la beneficiario/a y la UPV/EHU, y será incompatible con el disfrute de cualquier otra ayuda o beca que suponga dedicación horaria o con la percepción de cualquier cuantía que tenga naturaleza salarial. |
| 8.4. Laguntza jasoz gero, onuradunak ikerketa-masterreko ikastaro osoa egin beharko du, edo doktorego-programako irakaskuntza-aldia (20 kreditu) eta ikerketa-lana (12 kreditu). | 8.4 La concesión de esta ayuda supone para el/la beneficiario/a el compromiso de realizar el curso académico completo del Master de Investigación o el Programa de Doctorado (20 créditos de Docencia o 12 créditos de Trabajo de Investigación). |
| 8.5. Diru-laguntza osoa batera ordainduko da, onuradunak laguntzaren agiria eta baldintzak onartzeko adierazpena sinatu ondoren. | 8.5 El importe de la ayuda se abonará en un solo pago, una vez que el/la beneficiario/a haya presentado la Carta firmada de concesión y aceptación de condiciones que se le facilitará una vez publicada la resolución. |
| 8.6. Laguntza izateak ez du eskubiderik ematen unibertsitate-ikasketa ofizialetako edo berezko tituluetako prezio publikoak ez ordaintzeko. | 8.6 El disfrute de la ayuda no dará derecho a la exención de precios públicos en los estudios universitarios oficiales o títulos propios. |
| 8.7. Onuradunek onuradun izateari utziko diote honako arrazoi hauengatik: | 8.7 La condición de beneficiario/a se perderá por alguna de las siguientes causas: |
| a) Uko egitea.<br>b) Ezeztapena, eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza ematerakoan aintzat hartutako baldintzak aldatzeagatik.<br>c) Bat-batean sortutako bateraezintasuna. | a) Renuncia.<br>b) Revocación por incumplimiento de obligaciones o por variación de las condiciones que se tomaron en cuenta para su concesión.<br>c) Incompatibilidad sobrevenida. |
| Onuraduna b) edo c) egoeran izanez gero, espedientea izapidetuko da. Harekin bat, interesduna adituko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoarekin bat. | La concurrencia de las circunstancias b) o c) dará lugar a la tramitación de expediente en el que se dará audiencia al interesado conforme prevé la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. |
| 9.- ERREGIMEN JURIDIKOA | 9.- RÉGIMEN JURÍDICO |
| Deialdi honetako oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian honako arauok aplikatuko dira, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilea (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena) eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretua. | En lo no previsto en las bases de esta convocatoria se aplicará el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y Decreto 689/1991, de 17 de diciembre. |
| Leioa, 2007ko maiatzaren 24a | Leioa, 24 de mayo de 2007 |